
III.EUSKAL HERRIKO FRISOI TXAPELKETA

III. Euskal Herriko Frisoi Txapelketa antolatu dutenak oso balorazio positiboa egin dute helburuak bete direlakoan. Alde batetik, lehiatu ziren animaliak genetika handikoak ziren, eta bestetik, esne-sektorean lana egiten dugunon topa-gune bilakatu zen.

Jende ugari bildu ginen Tolosako Ferialekuan eta giroa ezin hobea izan zen. Goi-mailako ganadua eta sektorean lana egiten duten enpresa desberdinen stand-ak ikusteko aukera egon zen goizean zehar .

Nafarroako Planillo izan zen txapelketako garailea, berak eskuratu baitzuen sari preziatua, PLANILLO SEPTEMBER LUCI behia izan zen behin txapeldunen txapelduna.

Sariak ematen Eusko Jaurlaritzako Nekazaritzako Zuzendaria, Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako Frisoi Elkarteko Presidenteak, Foru Aldundiko Nekazaritzako zuzendaria, Tolosako Kulturako Zinegotzia eta ABEREKINeko kudeatzailea egon ziren. Ikus saribanaketa.

Gainera, bertan, frisoi elkarteetako gerturatutako bazkideen artean biga bat zozketatu zen. Irabazlea Nafarroako Araitzeko SC Gonzalez Gainza elkarteak izan zen bertako Mikel Gonzalezek saria jaso zuelarik.

Eguna borobiltzeko bazkari bat antolatu zen babesle, laguntzaile, ganaduzale eta antolatzaileentzako.